


Elkar ulertu, harremanaren oinarria.



Ulermena bermatuz euskaraz
mintzatzeko pistak...




ULERMENERAKO GILTZAK

Zer da jokoan?

Sarritan ez dakigu nola jokatu ulermen mugatua duten hiztunekin edo elebidun hartzaileekin (ulertu bai, baina gutxi mintzo direnak). Eta gehienetan erdarara lerratzen gira, 'sinpleago' izateko. Hala gertatzen da, adibidez, euskara ikasten dutenekin, hiztegi tekniko eskas dutenekin edo euskalki desberdina dutenekin. Baina euskara entzunez dira hiztun hauek erabat euskaldunduko.

Ulermenari begira portaera aktiboa izan.

Hizkuntza ohiturak aldatzea da giltza. Ez da errexia, baina hainbat esperientziak erakutsi duten bezala (Eusle, Ulerrizketa, Aldahitz...) posible da. Nola?



1. Portaera zaindu

- 1 Zure posizionamendua definitu:** ez zira irakaslea eta zure solaskidea ikaslea (edo alderantziz). Hutsak egiteaz ez beldurtu.
- 2 Aliatu bilakatu :** zure solaskidearen beharrak eta gogoak zein diren galdetu, arabera jokoera bat izateko. Batzuek nahiago dute zuzenduak izan ikasprozesuan hobetzeko, besteek ez.
- 3 Pazientziaz hartu:** zure solaskidea ez moztu etengabe, utzi esaldiak bururaino bukatzen.


2. Hizkera egokitu

Ulergarria izateko molde desberdinak badira:

- 1 Esaldi laburrak egin.
- 2 Hiztegi sinplea erabili.
- 3 Jarioa moteldu.
- 4 Euskalki edo euskara batua erabili kasuaren arabera.
- 5 Sinonimoak erabili, esaldiak birformulatu, erranaldiak errepikatu.
- 6 Keinuak erabili.




3. Elkarriketa elebidunak saiatsu



- 1 **Elebiko elkarriketak posible dira** : solaskide bat euskaraz eta bestea nagusiki erdaraz aritzeak ez du baitezpada natural egiten baina posible da.
- 2 **Erdaraz ere aritzeko aukera** : salbuespen moduan, erdarara jotzeko posibilitatea eskaintzeak presioa arindu dezake.
- 3 **Euskarari berriz lotzeko premia** : komunikazioaren simetria berorekatzeko eta ahozkoaren gaitasunak garatzeko, erdarara lerratzen dena berriz lotu euskarari.

3. Ulermena egiaztatu



- 1 Ezezagunekin, ulermenaren keinuei arreta eskaini:** begirada galdua du, galderei ez du erantzuten, haria galtzen duela dirudi? Argiki galdetzen ahal zaio ulertu duen edo ez.
- 2 Elkar ulermena egiaztatu:** solaskideen arteko konfiantza azkartzeko, elkarrizketa denboran tarteka ziurtatu elkar ulertzea bermatua dela. Ez da denbora galtzea edo solaskidea infantilizatzea.
- 3 Umiltasunez eta sinpleki jokatu:** batzuetan, buruarekin keinu bat eginez, edo hitz sinple batez posible da ulermena egiaztatzea elkarrizketa moztu gabe.
- 4 Estrategiak egokitu:** ongi ulertzen baduzue elkar, segitzen ahal duzue. Ulermen arazoak badira, egokitu beharko dute berriz solasari sanoki lortzeko.